

Felipe González-ek *fedea* eta *esperantza* aldarrikatu ditu bere hitzaldiaren amaieran. Baina bertute horiek teologikoak dira politikoak baino gehiago. Egoera gordina azaldu eta konponbi-deak urratzea dagokio politikari, eta ez hitz teologiko ederrez estaltzea.

Azterketa politiko gordin horren gakoa, berriz, egun horretan berean Palacio de Oriente Madrilgoan eraturako markoan —estatuen Europa— eta han bertan jaulkitako esaldi hauetan dagoela uste dut: «España el primer Estado-Nación de Europa» goraiapatuz, eta «emociones nacionalistas»tzat gutxietsiz nazio ukatuen Europa. Estatu-Nazioen Europa aurrera joango bada, Nazio-Herriak ukatuz eta deseginez, beldur izatekoa da, egunik gloriosoenak ere dramaz eta tragediaz odolduko direla gure Europa eta gure Euskal Herri honetan.

Europako Estatuetakoko gobernuburuek jo nahi izan zuten sinfoniaren barruan Kontra-Europako Herri ukatuek beren gairraisia bota zuten: horra ekainaren 12ko deskontzertua. ■ *Paulo Agirrebaltzategi.*

Euskararen berri onak

Poza ematen du euskarari buruzko berri on baten albiste emateak, norbaitek bestelakorik uste badu ere. Kritika egiteak ez du itsu bihurtzen.

Euskarazko albiste-agentzia bat eraikitzea erabaki du Eusko Jaurlaritzak. Ez dut berri zehatzagorik, egia esan. Euskarazko egunkariaren aurrepauzo bezala izango dela zabaldu da. Poztekoa da. Poztekoa da, baita, Martin Ugaldereen manupean dagoela hori martxan jartzeko agindua jakitea ere.

Hogei milioiko presupostua du agentziak. Ez dakit aski, gehiegi ala gutxiegi den. Segun zer egin nahi den. Ez dut uste itzulpen-agentzia izango denik. Euskal kazetaritzaren estrategia zabalago eta luzeago batean kokatu beharko da delako agentzia hori. Euskal kazetaritzaren desarroiloaren frenu ez baino dinamizatzaile izan beharko luke, euskal kazetari-taldea ez mantentzeko prentsa-enpresei aitzakiarik emateke. Euskal kazetaritza praktikoaren eskola txiki bat muntatu beharko litzatekeela horren inguruan, esango nuke.

Esan bezala, albiste-agentzia hori euskal kazetaritzaren estrategia orokor baten koordenadatan pentsatu beharko litzateke. Eta ezinbestekoa da horretarako euskal kazetarien lankide-

tza, premiak ezagutzeko eta bideak eta helburuak markatzeko orduan.

Euskarazko albiste-agentziaren lehen ondorioa euskararen efektu biderkatzailea izango da. Euskararen presentzia soziala erraztu egingo du, noski. Eta, bide batez, zenbait kazetal enpresak ez du kostuaren aitzakiarik atera ahal izango orain, euskara bere orrialdeetan gehitzeko orduan. Eta zer esanik ez, euskarazko egunkariak traba bat gutxiago du honela. ■ *Joan Alzibar.*

Biolentzia eta beldurra

Euskal Herriko biolentzia dela eta ez dela zenbat solas, hitz, eztabaida. Eta zenbat topiko.

Biolentziaren beste alderdia, beldurra da. Zenbat klixek hor ere.

Atzo ikusi nuen ETBko mahaingurua, biolentziaz (85.06.11). Alderdi politikoak ziren solaskide. Mementuko dialektika gorabehera, betikoa. Aldez aurretik genekien alderdikide bakoitzak zer esango zuen. Hori esan behar zuen gainera, horixe esatea tokatzen zitzaion eta.

Hurrengo egunean —kasualitatea, benetan— oraindik argitaratzeke dagoen liburu baten kapitulu bat izan nuen eskuartean. Euskal Herrian hezurmamitzen den biolentziaz da liburuak, inkesta batetik abiatuak J. I. R. Olabuenagak burutua. Eskuartean dudak kapituluak «Violencia y Sociedad» du izenburua.

Bi puntuk eman didate atentzioa kapitulu horretan. Bat: kolektibo bezala zeinek du beldurrik gehien gure gizartean? Bi: zeini edo zeri dio beldurrik gehien jendeak?

Lehen puntuaz egin duen azterketan, konklusio honetara iristen da egilea: Gizarte-talde bezala HB-zaleen kolektiboa da beldurra, beldur politikoa, gehien jasaten duena, batipat errepresio politikoaren beldurra. Bagenekien biolentziaren legitimazio sozialean aurrenak zirela HBkoak. Beldurrean ere aurrenak direla jakiteak, agian zerbait esplikatuko du.

Bigarren puntua ere argigarria da oso. Egiaz eta benetan zeri dio beldur jendeak? Beldur hori, motaz-mota, neurtu nahi izan du inkestak. Agertu bezala emango ditut esaldiak eta porzentaia: